

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Pablo Sarasate kontserbatorioak bi espezialitate berri eskainiko ditu: baxu eta gitarra elektrikoak

Piskanaka ezarriko dira bi espezialitateak

Osteguna, 2017.eko maiatzak 11

[Foru Agindua](#) sinatu berri du Hezkuntza kontseilari Maria Solanak Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalak bi espezialitate gehiago eskaini ahal izateko. Progresiboki ezarriko dira bi espezialitateak.

Eskari oso handia duten ikasketak dira. Zehazki, 15-16 ikasturtean 23 udal musika eskolako 347 ikaslek egin zituzten gitarra elektrikoaren oinarritzko ikasketak eta 10 udal musika eskolako 64 ikaslek, berriz, baxu elektrikoarenak.

Egoera paradoxikoa bizi izan dute orain arte ikasketa horiek egin nahi zituzten ikasleek; izan ere, aukera zuten Musika Eskoletan (oinarritzko ikasketak) eta Goi mailako Kontserbatorioan (unibertsitate mailako ikasketak) ikasteko; baina, erdiko mailako zikloa falta zuten.

Emandako urratsarekin Nafarroako hezkuntza eskaintzari koherentzia ematen zaio, batetik, eta eskari sozialari erantzuz, bestetik.

Espezialitate berri hauekin dagoeneko 25 dira musika-tresnetan espezializazioak Kontserbatorio Profesionalean. Aurrera begira, Antzinako Musika faltako litzateke Errege Dekretuak ahalbidetzen duen katalogoa osatzeko.

Behin Foru Agindua onartuta, Hezkuntza departamenduak lehenengo mailan eskainiko diren plazak zehaztuko ditu, hortik ekingo baitzaio espezializazioari.

Baxu eta gitarra elektrikoaren espezializazio ikasturtean izena eman nahi dutenek sarrera-froga gainditu beharko dute, gainerako espezialitateetan bezalaxe. Lehenengo mailan hasteko frogak, seguru asko, ekainaren amaieran egingo dira, gainerako frogak baino zertxobait beranduago.